

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Egileak: Ane Lopez, Naia Eguia, Sofia Gomez eta Arai Biteri.



Uribe Kostako BHIko ikasleak gara. Startinnova sarearen bitartez, gure etorkizuneko proiektu profesional posiblea aurkeztuko dizuegu.

Azken mende honetan nabarmen diren aferaren aurka ekinez, bizimodu osasuntsu bat sustatzearen eta kirolaren erabilera bultzearen alde gaude, baita turistei eta bertako biztanleei ahalik eta erosotasun egokienak eskaintzea hizpide harturik, **takilen alokairua eta bizikletak alokatzeko zerbitzua** aurrera eramango dugu.

Klima aldaketak etorkizunean sortaraziko dituen ondorioak eta aldaketak jada aurreikusten ari garela kontuan izanik, eta Euskal Herrian hainbat tona janari alferrik galtzen ari direla aintzat hartuz gure gizartean aldaketa lehenetsi nahi dugu. Horretarako, **hozkaile solidarioaren zerbitzua eta bidegorriak egitearen idea eskaintzera gatoz.**

Ziklo honetan ikusten ari garen bezala, **gizarte jasangarri baten garapenerako ezinbestekoa da jarrera positibo eta aurerakoia.** Honetarako, guztiok batera elkarlanean aritzea beharrezkoa delakoan gaude.

Ezin dugu ahaztu gaurko ekintzek biharko etorkizuna markatuko dutela eta bide horretan gure aletxoak jarri nahi dugu, **Utopia** izeneko proiektuarekin.